Bypass-a AP-8an Deban larunbatetik igandera Behobiako norabidean asfaltatze-lanak egiteko

Azaroaren 7tik, larunbatetik, 14:00etatik, 8ra, igandera, 14:00etara, Behobiako norabidean doan trafikoa Bilboko plataformatik desbideratuko da, eta Behobiako norabideko 54.Deba-Itziar lotunea itxiko da



AP-8, AP-1, GI-20 eta AP-636 errepideetako hainbat zatitako zoladura berritzeko kanpainaren zortzigarren jarduketaren lanak amaituko ditu Bidegik asteburu honetan. Zehatzago, AP-8an, Behobiako norabidean, Deban asfaltatze-lanak egingo ditu 56,000 eta 53,100 pk artean.

Lanak azaroaren 6an, ostiralean, 21:00etan hasiko dira, eta igandetik astelehenerako gaua arte, 02:00ak arte, luzatuko dira. Ostiral gauean ezkerreko erreia itxiko da Behobiako norabidean bypass-a jarri aurreko prestaketa lanak egiteko.

Bypass-a larunbatetik igandera eta 54.Deba-Itziar lotunearen itxiera

Afekzio nagusiena larunbatetik igandera sortuko den bypass-a izango da. Hala, azaroaren 7an, larunbatean, 14:00etatik aurrera, Behobiako norabidean doan trafiko guztia Bilboko norabideko plataformatik desbideratuko da, 56,500 eta 53,000 pk artean. Bypass-ak azaroaren 8ra, igandera, 14:00ak arte iraungo du.

Bypass-aren eraginez, AP-8ko 54.Deba-Itziar lotunea Behobiako norabidean, eta zerbitzugunerako sarrera zein irteera itxi egingo dira. Ondorioz, lotune hori Behobiako norabidean erabiltzea aurreikusita zuten erabiltzaileek honako alternatibak izango dituzte:

- Lotunea **AP-8tik Itziar, Deba edo Mutrikura joateko** erabiltzen duten gidariek, Elgoibarko 64.lotunean irten beharko dute eta jarraian N-634 errepidetik jarraitu.

- **AP-8ra Behobiako norabidean sartzeko**, erabiltzaileek N-634 errepidea erabili beharko dute eta Zestoa-Zumaiako 48.lotunetik autobidera sartu.

Behin bypass-a kenduta, ezkerreko erreia itxita geldituko da 53,500 puntu kilometrikoan, bi norabideetan, erdibideko pasoa ixteko lanak egiteko. Aurreikusita dago, lan horiek igandetik astelehenerako gauan 02:00etan amaitzea.

Zoladura berritzeko 2026-2027 kanpaina

Bidegi 14,9 milioi euroko inbertsioa egiten ari da AP-8, AP-1, GI-20 eta AP-636 errepideetako 46 kilometrotan zorua berritzeko. Helburua da zoladuraren baldintza estrukturalak eta funtzionamendua mantentzea, bide-segurtasuna bermatuz eta ematen den zerbitzu mailari eutsiz.

Bidegik jakinarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla, izan ere, eguraldia bezalako faktoreek aldaketak eragin ditzakete. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarautz, 2026-11-04

Bypass en la AP-8 en Deba entre el sábado y el domingo para realizar trabajos de asfaltado sentido Behobia

Desde el sábado 7 de noviembre a las 14:00horas, al domingo 8 a las 14:00horas, el tráfico que circule sentido Behobia será desviado por la plataforma sentido Bilbao, y se cerrará el enlace 54 Deba-Itziar, sentido Behobia.

Bidegi va a finalizar los trabajos para renovar el octavo tramo de firme dentro de la campaña para remodelar el asfalto en diferentes lugares de la AP-8, AP-1, GI-20 y AP-636. En concreto, se van a realizar las labores de asfaltado en la AP-8 en Deba sentido Behobia, entre los pk 56,000 y 53,100.

Los trabajos comenzarán el viernes 6 de noviembre a las 21:00 horas y se prolongarán hasta la madrugada del domingo al lunes a las 02:00 horas. Así, la noche del viernes se cerrará el carril izquierdo sentido Behobia para llevar a cabo los trabajos preparatorios previos a habilitar el bypass.

Bypass de sábado a domingo y cierre del enlace 54 Deba-Itziar

La afección principal será el bypass que se habilitará entre el sábado y el domingo. De este modo, el sábado 7 de noviembre, a partir de las 14:00 horas, todo el tráfico que circule sentido Behobia será desviado por la plataforma sentido Bilbao, entre los pk 56,500 y 53,000. El bypass se mantendrá activo hasta el domingo 8 de noviembre a las 14:00 horas.

Como consecuencia de la habilitación del bypass, el enlace 54 Deba-Itziar, sentido Behobia, así como la entrada y salida del área de servicio permanecerán cerrados. Por lo tanto, las personas usuarias que tuvieran previsto utilizar este enlace tendrán las siguientes alternativas:

- Las y los conductores que tuvieran previsto utilizar el enlace **para ir de la AP-8 a Itziar, Deba o Mutriku**, deberán utilizar la salida 64 de Elgoibar y continuar por la N-634.

- **Para entrar a la AP-8 sentido Behobia,** las personas usuarias deberán utilizar la N-634 hasta el enlace 48 de Zestoa-Zumaia, donde se podrán incorporar a la vía.

Una vez retirado el bypass, el carril izquierdo permanecerá cerrado en el punto kilométrico 53,500 en ambos sentidos para realizar los trabajos de cierre del paso de mediana. Está previsto que estos trabajos finalicen la noche del domingo al lunes a las 02:00 horas.

Campaña renovación de firmes 2026-2027

Bidegi está realizando una inversión de 14,9 millones de euros en la renovación de 46 kilómetros de firmes de la AP-8, AP-1, GI-20 y AP-636. El objetivo de la campaña es mantener las estructuras funcionales del pavimento, preservando la seguridad vial y el nivel del servicio.

Bidegi informa que los horarios establecidos para realizar estos trabajos son aproximados, ya que pueden variar dependiendo de factores como la meteorología. En este sentido, aconseja circular con precaución y seguir las indicaciones establecidas tanto por las señales como por el personal de obra que se encontrará en el lugar.

Zarautz, 2026-11-04